



BESTE HERIOTZA BAT ZABALLAKO ESPETXEAN (Araba) ASKI DA!! HERIOTZA GEHIAGO EZ ESPETXEAN, INPUNITATE GEHIAGO EZ!!

ELKARRETARATZEA DEITZEN DUGU GASTEIZEN, ASTEAZKENEAN, MARTXOAK 19, 13:00ETAN ANDRE MARIA ZURIAREN PLAZAN

Gaur goizean, 2025eko martxoaren 14an, 34 eta 35 urte arteko pertsona bat, ohiko bizilekua Gasteizen zuena, hilda aurkitu dute Zaballako espetxeko bere ziegan.

Informazioa preso senideen elkarteak helarazi digu, eta hau da dakiguna: pertsona hau, gasteiztarra eta alaba bat duena, errespetu moduluaren zegoen giltzaperatua Zaballako Espetxean. Medikazio psikiatrikoa jasotzen ari zen, kopuru oso handian, eta modulu bereko beste pertsona preso batek lagunduta zegoen ziegan.

Susmoa dugu ziegan lagunduta zegoela suizidioen aurkako protokoloa aktibatu zitzaielako, **protokolo horrek aurreikusten duelako, neurri nagusi gisa, bere babeserako beste preso bat egokitzea**. Hau da, **osasun edo medikuntza arloan inolako gaitasunik ez duen pertsona bat**, eta askotan ez duena erantzukizun hori bere gain hartu nahi, eta behartu egiten dutena, kontuan hartuz bere ardurapean jartzen dutela historial psikiatrikoa duen pertsona bat, arreta berezitua eta jarraipen egokia behar dituen.

EZ DA KASU ISOLATU BAT, EZ SALBUESPENA ERE

9 dira jada EAEko kartzeletan eman diren heriotzak Eusko Jaurlaritzak 2021ean eskumena bereganatu zuenetik.

Alde batetik, espetxeko mediku arreta ez da nahikoa, azalekoa da eta sarbide zailekoa. Bestalde, sistematikoki falta da heriotza hauei buruzko komunikazioa eta informazioa ezkutatzeko diete familiei eta kanpoaldeari espetxeko arduradunek.

Norbanakoen zaurgarritasun baldintzez gain, ez da ahaztu behar kartzelako gorputzetan eragin kaltegarriak ekartzen dizkiela: isolamendua, harreman dinamika zailak, elikadura txarra, inguruarekin menpekotasun harremanak.

Kartzelen egiturak eragin suntsitzaileak ditu barneratuen osasun mental eta fisikoan.

Zein komunikazio mekanismo dituzte Espetxe Erakundeek haien harresi barruan gertatzen diren heriotzen inguruan? Nola ematen zaio informazioa gizarteari kartzelan hiltzen diren pertsonen buruz? Pertsona hauek zenbat, familia sarrerik ez dutenak, gelditzen dira ahaztuta? Zein arrazoiengatik sortzen dira heriotza hauek? Eta, beste behin, haserretu egiten gaitu euskal espetxeen administrazioak duen gardentasun faltak.

Dei egiten diegu Espetxeetako Zuzendaritza Orokorrari, Barne Ministerioari eta Gobernuari berehalako neurriak hartu ditzatela heriotza hauek saihesteko.

Fiskaltzari exijitzen diogu ez dadila kanpo geratu, eta ofizios ekin diezaiola heriotza hauek ikertzeari, argitzeko zein egoera eta arrazoen ondorioz eman ziren, eta familiei informazioa eta babes legala eman diezaien, haiek ardurak eskatu ahal izateko, zibilak zein penalak, justizia penaren kudeaketaren ondorioen inguruan, eta baita kalte ordainak jasotzeko aukera eman diezaien ere. Gainera, eskatzen dugu babes psikosoziala eman diezaietela, eragin argia duelako familiengan preso zaintza arduragabeak.

Osasun arazo fisiko edo mentalak dituzten presoak, zein patologia duala dutenak, berehala aske uzteko eskatzen dugu, izan ere, askotan suizidioan amaitzen direlako halako kasuak. Pertsona hauek zaintzak eta mediku arreta behar dituzte, eta kartzelan ezin zaie modu egokian eman. Ondorioz, okerrera egiten dute haien osasun egoerak eta ongizate psikologikoak.

Beharrezkoa da erreforma bat egitea espetxe araudian eta araudi penalean, beharrik gabe luzatzen dituelako zigorrak eta mugatu egiten duelako baimenak lortzeko aukera, hirugarren gradua edo baldintzapeko askatasuna.

Heriotza gehiagorik ez espetxean, gehiegikeria psikologiko eta fisiko gehiagorik ez, arduragabekeria mediko gehiagorik ez, isolamendu gehiagorik ez.

Espetxeetako harresiek ez ditzatela biktimak ezkutatu!

Espetxeko zure heriotza azkena izan dadila eta Justiziak konpondu dezala jasan duzun utzikeria.